

234/2021 EBAZPENA, .maiatzaren.5koa, Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez onesten baitira Kirolaren Balio Positiboen Sariak emateko oinarriak.

Kirolaren Zuzendariordetzak I. eranskinean aurkezten ditu Nafarroan, 2020-2021 denboraldian, kirolaren balio positiboen babesa eta sustapena saritzeko oinarriak.

Sarien bidez aintzatetsi nahi dira halako pertsona edo talde nafar batzuk jokabide edo ekimen nabarmenak izan dituztenak kirola egitean edo kirolaren testuinguruan, batez ere eskola-adina dutenen kirolaren alorrean, portaera haien bidez kirolaren balioak babestu eta/edo sustatu dituztenean.

Kirol eta jarduera fisikoaren alorrean kirol jokaera eredugarriren bat izan duten pertsona, talde edo erakunde nafarrak saritzen ahalko dira, kirolaren balioak islatzen dituen jokaera hori 2020ko ekainaren 23tik 2021eko apirilaren 30era arte gertatu bada.

Ebazpen honen I. eranskinean zehazten dira oinarriak, epaimahaia eta sariak. Ebazpenaren berri zabalduko da bai Nafarroako Kirolaren Institutuko webgunean bai Nafarroako klub eta federazioen posta elektronikoen bidez. Eranskinean zehazten da zer prozedura erabiliko duen epaimahaiak proposamen sarituak hautatzeko. Edozein pertsonak edo entitatek aurkezten ahalko ditu hautagaiak, erregistroaren bidez edo Nafarroako Kirolaren Institutuaren webgunearen bidez, esteka hauetakoren bat erabiliz: <https://www.deportenavarra.es/eu>. Kirolaren Zuzendariordetzak beste hautagai batzuk eransteko ahalmena izanen du, behar beste merezimendu dutela iritziz gero.

Prozesua arautzeko, Nafarroako Kirolaren Institutuko zuzendari kudeatzaileari proposatu zaio ebazpen bidez onets ditzan 2020-2021 denboraldian kirolaren balioak Nafarroan babestu eta sustatzeko sarietarako oinarriak.

Horrenbestez, Nafarroako Kirolaren Institutuaren estatutuak onesten dituen azaroaren 15eko 326/2019 Foru Dekretuak eskuordetu dizkidan ahalmenekin bat,

**EBAZTEN DUT:**

1. KIROLAREN BALIO POSITIBOEN sariak emateko oinarriak onestea, zeinak I. eranskinean baitaude.

2. Epaimahaiko kideak izendatzea, zeinak I. eranskinean ageri baitira.

3. Ebazpen hau Kirolaren Zuzendariordeztzara eta epaimahaiko kideei jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan. Iruña, bi mila eta hogeita batko .maitazaren bosta NAFARROAKO KIROLAREN INSTITUTUKO ZUZENDARI KUDEATZAILEA. Miguel Ángel Pozueta Uribe Echeverria.

Jakinarazten da eta behar diren ondorioak izan ditzan eta aipatuz ez duela administrazio bidea amaitzen eta haren kontra, gora jotzeko errekurtsua jartzen ahal dela ebazpenean horrela aipatzen baldin bada.

Iruña, bi mila eta hogeita batko .maitazaren bosta.

**ADMINISTRAZIO ETA KUDEAKETA ATALEKO BURUA**

Firmado digitalmente por  
SUESCUN SANCHEZ CARLOS  
JAVIER - DNI 291540105  
Fecha: 2021.05.19 11:07:16  
+02'00'

Carlos J. Suescun Sánchez

## I. ERANSKINA

### KIROLAREN BALIO POSITIBOEN BABESA ETA SUSTAPENA SARITZEKO OINARRIAK, 2020-2021 DENBORALDIAN.

Nafarroako Kirolaren Institutuak (NKI) kirolaren balio positiboaren sarien modalitate hauek finkatu ditu:

- a) Emakumezko kirolaria.
- b) Gizonezko kirolaria.
- c) Arbitroa.
- d) Teknikaria.
- e) Kirol erakundeak (federazioak, klubak...)
- f) Toki erakundeak, hedabideak eta kirolaren arloko beste kolektibo batzuk.

#### 1. PROPOSAMENAK HAUTATZEA.

- 1.1. Sariak emateko proposamenak 2021eko maiatzaren 31 arte aurkezten ahalko dira.
- 1.2. Edozein pertsona edo entitatek aurkezten ahalko ditu hautagaiak, erregistroaren bidez edo Nafarroako Kirolaren Institutuaren webgunearen bidez, esteka hauetakoren bat erabiliz:

Gaztelaniazko inprimakirako esteka:

<https://forms.gle/gqcrBmf6oZeKdL8z6>

Euskarazko inprimakirako esteka:

<https://forms.gle/ypyGDi6iNiuMWzqb8>

- 1.3. Proposamen edo hautagaitzetan informazio hau agertu beharko da:
  - Zein pertsonak edo entitatek egiten duen proposamena, haren helbide elektronikoa eta telefonoa.
  - Saritzeko moduko kirol jokaera izan duen pertsona edo entitatea.
  - Jokaera horren azalpen laburra eta zer inguruabarretan gertatu den.
  - Jokabide horri buruzko informazioa, albistea, euskarria edo frogagiria.
- 1.4. Proposamenak aurkezteko epea bukatutakoan, Nafarroako Kirolaren Institutuak, epaimahaiaren bidez, hautagaiak aukeratuko ditu, irizpide hauen arabera:
  - 1.4.1. Sarietan honako modalitate hauek egon beharko dira: Emakumezko kirolaria, gizonezko kirolaria, teknikaria, arbitroa, kirol erakundeak (federazioak, klubak...), toki erakundeak, hedabideak eta kirolaren arloko beste kolektibo batzuk.

1.4.2. Dena delako jokaera horrek Kirolaren Balioen Planak nabarmenduriko balioen bat edo bat baino gehiago sustatu edo babestu beharko ditu, hots, begirunea, berdintasuna, nork bere mugak gainditzea, joko garbia, inklusioa eta adiskidetasuna.

1.4.3. Kontuan hartuko da, ahal den heinean, aipaturiko 6 balio horietako bakoitza saritu dadin hautagaitzaren batean.

1.4.4. Pertsona edo talde nafarrak jokabide edo ekimen nabarmenak izan dituztenak kirola egitean edo kirolaren testuinguruan, batez ere eskola-adina dutenen kirolaren alorrean, portaera haien bidez kirolaren balioak babestu eta/edo sustatu dituztenean.

1.4.5. Jarduera fisikoaren eta kirolaren alorreko pertsona, talde edo erakunde nafarrak, 2020ko ekainaren 23tik 2021eko apirilaren 30era bitarte kirol jokaera nabarmenen bat izan dutenak.

1.4.6. Kasuan kasuko jokaeran erakutsitako eredugarritasuna, komenigarritasuna, merezimendua eta behin baino gehiagotan gertatu den.

1.4.7. Kirolaren Zuzendariordetzak beste hautagai batzuk eransteko ahalmena du, behar beste merezimendu dutela iritziz gero.

## **2. PROPOSAMENAK HAUTATZEA**

2.1. Hautagaiak eta merezimenduak: Epaimahaiak proposamenak eta haien merezimenduak aztertuko ditu.

2.2. Bozketa: Epaimahaiko kideek, proposamenak aztertu ondoren, botoa emanen dute modalitate bakoitzeko hautagairik onena aukeratzeko.

Epaimahaikide bakoitzak 2 puntu emanen dizkio, gehienez, modalitate bakoitzean baliotsuen iruditzen zaion hautagaiari. Puntuak batu eta berdinketarik gertatzen bada, berriz eginen da bozketa, baina, bigarren aldi horretan, epaimahaikide bakoitzak berdinduta gelditu diren hautagaien artean bat aukeratu beharko du eta hari 2 puntu eman, besterik ez. Hala ere, berdinketak irauten badu, epaimahaiburuaren kalitatezko botoak ebatziko du.

2.3. Epaimahaiburuak, egoki baderitzo, bozketara eramanez du oinarriotan ageri ez den zeinahi zalantza edo aurreikusi gabeko zeinahi kontu.

2.4. Epaimahaikideren batek saria emateko proposatu den erakundearekin zuzeneko harremana badu, kide horrek ez du bozketan parte hartuko.

2.5. Bozketa egin ondoren, modalitate bat edo gehiago hutsik geratzen badira, sari bat baino gehiago emanen zaio beste zeinahi modalitateri, aintzat harturik 2. edo 3. tokian geratu ziren hautagaiak.

2.6. Oinarri hauen berri emanen da bai NKIren webgunean eta bai Nafarroako kirol klub, toki entitate eta kirol federazioen posta elektronikoen bitartez. Ondoren, emaitzak hainbat bidetatik plazaratuko dira, eta aurrez aurreko ospakizuna edo aintzatespen-ekitaldia ere antolatuko da.

2.7. Epaimahaikideek eztabaidatu eta erabaki ondoren, hautagai sarituak onesteko ebazpena emanen da, eta epaimahaiaren bozketaren akta jasoko da bertan.

### 3. EPAIMAHAIKIDEAK

Epaimahaia honako hauek osatuko dute:

- Epaimahaiburua: **Primitivo Sánchez Sanz**  
Kirolaren zuzendariordea
- Idazkaria: **Esteban Imaz Vacas**  
APT - Arlo juridikoa
- Epaimahaikideak: **Begoña Echeverría Beroiz**  
Kirola Sustatzeko Ataleko burua

**Andoni Irujo Pérez de Eulate**  
Nafarroako Kirol Jokoen Bulegoko burua

**Ana Onaindia Salaberria**  
Kirola Sustatzeko Bulegoko burua

**Edurne Bejarano Elizagaray**  
Bitartekaritza Bulegoko kirol teknikaria

### 4. SARIAK

4.1. Gehienez ere 6 sari emanen dira:

- Emakumezko kirolaria.
- Gizonezko kirolaria

- Arbitroa.
- Teknikaria.
- Kirol erakundeak (federazioak, klubak...)
- Toki erakundeak, hedabideak eta kirolaren arloko beste kolektibo batzuk.

4.2. Modalitate horietako batean edo batzuetan saririk ematen ez bada, edo proposamen nabarmenik ez badago, gainerako modalitateen artean banatuko dira sariak, epaimahaiaren iritzia jarraikiz.

4.3. Sari bakoitza, funtsean, 175 euroko balioa duen kirol-materiala izanen da, eta, modalitateen batean saria eman gabe gelditzen bada, gainerako modalitateetako edozeinetan 2. edo 3. geldituriko proposamenari emanen zaizkio opariak.